K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:41 Página 1

KALAPUTXI

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA 2012ko maiatza 117. zenb.

ZABORRAREN KUDEAKETA EZTABAIDAGAI (II)

ARRAINAK URETAN BEZALA...

HERRITIK BIDALITAKOAK

Herrira

Joxe Mari Ulazia Ibarzabal

Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

Elgoibarko IMHn...

ingeniaritza imh

DBH Ondoren? ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA eta ondoren lanera edo goi maila ikasten jarraitu...

BATXILERGOA amaitzean? GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA eta ondoren lanera edo ikasten jarraitu...

... goi-mailako Heziketa Zikloaren ondoren egiteko Pentsatutako INGENIARITZA: Txandakako Ingeniaritza (prestakuntza duala)

HEZIKETA ZIKLOAK
Erdi-maila
- Mekanizazioa
- Mantenu Elektromekanikoa* berria

HEZIKETA ZIKLOAK
Goi-maila (D eredua)
- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programazioa berria
- Mekatronika industriala*

TXANDAKAKO INGENIARITZA ESKOLA:
AURTEN GRADU BERRIA
Prozesu eta Produktu Berrikuntzaren Ingeniaritza (*bideratzen*) berria

ate irekiak: maiatzaren 26an, goizeko 11:00etan

etortzeko deitu 943744132ra edo idatzi hemen: www.imh.es

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:41 Página 3

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6
Bi hitzetan	8
Lapazorrikeixak	11
Karenka	12
Historixa	14
Hezkuntza	16
Gizartia	18
Zorion agurrak	20
Argazki zaharrak	21
Agenda	22

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Argitaratzailea
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale,12 behea - 20830 Mutriku.

Telefonoa
635 748 393
e-maila
kalaputxi@topagunea.com
kalaputxi2001@gmail.com
Bloga
kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea
Mutrikuko Udala
Kolaboratzaileak
Iñigo Andonegi, Josu Ituarte
Tirada
2.200 ale
Lege Gordailua
SS-787/01
ISSN
1579-4792
Inprimategia
EUSKALINPRI. Deba
Banaketa
Kalaputxi

iritzixa

BERRI TXARREN ITZALETAN

Azkenaldian berri txarren itzaletan murgilduta bizi garela esan zidan bestean aspaldiko lagun batek, eta kafe bat hartzen geundela bota zidan 'sinmaseko' esaldi horri makina bat buelta eman dizkiot pasa diren asteotan.

Inoiz baino gehiago, egunkaria irakurtzeak, telebista pizteak edo irratia entzuteak desasosegu larria sortzen digu, aztoratu egiten gaitu, barrenak nahastu… Neri bai behintzat. Langabezia, etxe gabe geratu diren familiak, ondorengo hilabetetara begira dauden aurreikuspen apokaliptikoak, gerrateak, ustelkeria kasuak…

Bizitzaren alde ilunari begiratzen hasten garenean gehienetan oso trebeak izaten gara, ni bai behintzat, iluntasun hori beltz ilunez margotzeko. Inguratzen gaituen jendeari, maite dugun horri, azkenaldian gertatu zaizkion gauza txarrek ere barne hausnarketa bat egitera behartzen gaituzte (askotan, denbora falta dela eta, horretarako astirik ez dugu izaten eta. Nik ez behintzat). Aita galdu duen laguna, ama galdu duena, lanetik kaleratu berri dutena, gaixo dagoena, burumakur dabilena, bere familia urrun duena, banandu egin dena… Horrelako egoera eta bizipenak etortzen zaizkizu burura eta lagun horien larruan jartzen saiatzen zara. Eta sufritu egiten duzu. Nik bai behintzat.

"Egunkaria hartu eta, berri onik aurkitzen baduzue, azpimarra itzazue eta edukia landu". Zer da hau? Bapatean idazten ari den pedante honi okurritu zaion joko bat? Ba ez. Leioako Kazetaritza fakultatean irakasle batek orain dela gutxi proposaturiko ariketa bat da. Ikasleek astebeteko epea izan zuten lana burutu eta gelakideen aurrean aurkezteko. Egun haundia heldu zenean, izugarrizko eztabaida sortu zela azaltzen zidan, guztiz harrituta, talde horretan kazetaritza ikasten ari den neska baten ahizpak. Kazetaria bera ere. "Lana egitea eskatu zieten egunean barre eta dana egiten zutela esaten zidan ahizpak, 'menuda chorrada', komunikabideetan agertzen diren berri danak txarrak dira eta!!", kontatzen zidan irrifar txiki batekin nere lagun kazetariak.

Baina hasiera batean hain erraza zirudien lana nahasten eta zailtzen hasi zen. "Berri txarrek ere badute alde positiboa, nahiz eta oso txikia izan edo izkutatuta egon",

"Gauza okerrenek ere eragin positiboak izan ditzazkete"… Nere lagunari bere ahizpak kontatu zionenez, Ikasleak zoratzen ibili ziren, buruari bueltak eta bueltak emanaz. Aurkeztu zuten berri on zorta izugarri luzea izan zen.

Irakasleak bere helburua bete zuela adierazi zien: "mundua eta bizitza ikuspegi ezberdinetatik aztertu dituzue, enpatia landu duzue, objetibitatearen inguruan hausnarketa bat egin duzue, begiratzen duten begien jarreraren garrantziaz jabetu zarete. Hori da kazetaritza. Eta hori da bizitza". Horrelaxe bukatu zuen irakasleak seguruenik karrerako lezio garrantzitsuenetarikoa izango zena.

Iluntasunez inguratuta gaude bai, hori ukaezina da, eta fribolitate hutsa izango zen hau ukatzea. Baina inguruan, alboan, baditugu ere argiak eskaintzen digun berotasun eta energiaz beteriko beste hainbat gauza eder ere. Asko maite ditudan lagun ugari zoriontsu ikusten ditut azkenaldian bizi berri baten esperoan, pozik, ilusioz beteta. Adibidez. Eta horrek asko pozten nau. Niri bai behintzat. Iluntasunaren eta argiaren arteko amaigabeko borroka horretan guk ere banatu dezakegu batak edo besteak duen zama. Etxekolan osasuntsuen zerrendan apuntatu dut. Nik bai behintzat.

Mireya Alvarez

Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailordetza
EUSKO JAURLARITZA

Gipuzkoako Foru Aldundia

Mutrikuko Udaleko
Kultura eta Euskara Batzordea

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 4

telefonoak

Medikuak, anbulantziak, botikak

Larialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Zaintzako botikak:

Otxagabia (Mutriku) 689 58 57 59
Apraiz (Mutriku) 630 05 50 97
Zalduegi (Deba) 669 26 22 02
Burgoa (Deba) 667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar) 943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar) 943 74 11 77
Yudego (Elgoibar) 943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) 943 74 12 77

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Bake Epaitegia 943 60 70 49
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua 943 60 34 18
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz Frontoia 688 64 31 80
Ur partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Anai Arte 943 60 34 10

Irakaskuntza

Goizeko Izarra ikastola 943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 36 27
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola 943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

Ansola Taxia 638 672 383
Anton Taxia 666 221 999
Xabi Taxia 656 289 026
Pesa autobusak 902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Iberdrola 901 20 20 20
Kofradia 943 60 32 00
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Gasolindegia 943 60 32 10

ordutegiak

Autobusak

MUTRIKUTIK → DONOSTIARA

Astegunak 7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
Zapatuak 10:00 / 16:30
Jai egunak 10:00 / 19:30

DONOSTIATIK → MUTRIKURA

Astegunak 8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
Zapatuak 11:30 / 19:30
Jai egunak 11:30 / 20:30

MUTRIKUTIK → BILBORA

ASTEGUNETAN GOIKO ERROTONDATIK

06:25 / 07:25 / 15:25

BILBOTIK → MUTRIKURA

14:10 / 18:10 / 20:10

MUTRIKUTIK → DEBA - MALLABIA

Astegunetan: 7:15etik 21:15era **orduro**.
Jai egunetan: 8:15etik 21:15era **orduro**.

MUTRIKUTIK → ONDARROARA

Astegunetan: 6:55etik 20:55era, **orduro**.
Jai egunetan: 7:55etik 20:55era **orduro**.

Trenak

Orduro ateratzen dira adierazitako ordu tartean.

DEBA → DONOSTIA → DEBA

Debatik **6:44** – 7:44 - ...- **21:44**
Donostiatik **5:47** – 6:47 - ...- **20:47**
Jai egunetan 8:44etan lehenengoa.

DEBA → BILBO → DEBA

Debatik **6:43** – 7:43 - ...- **20:43**
Bilbotik **6:00** – 7:00 - ...- **20:00**
Jai egunetan 8:43etan lehenengoa.

DEBA → EIBAR → DEBA

Debatik **6:43** - 7:43 - … - **21:43**
Jai egunetan, 8:43etan hasiko da

Eibartik **6:13** - 7:13 - ... - **21:13**
Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 5

ESKERRONEZ

Igor Esnaola Salegiren familia osoaren izenean, era batera edo bestera lagundu diguten guztiekiko gure esker ona azaldu nahi dugu letra hauen bidez.

Mila esker bihotzez joan zen Apirilaren 21ean frontoian omenaldi ekitalia antolatu eta parte hartu duten guztiei. Batetik Barpuertoko kuadrillari, Galdonako kuadrillari eta nola ez Danok Bat pelota elkarteari: ez dugu inoiz ahaztuko egin zenuten lan handia.

Ezbeharraren ondoren gure familiak Igor ezagutzen zuten beste leku askotako jendeen berotasuna sentitu du, izaera, adin, sineskera eta bizimodu oso ezberdinetako herritarren beroa, eta guztiei mila esker. Bai haren oroimenezko omenaldian parte hartu edo lagundu zuten -eta inor ez ahazteagatik izendatzen ez ditugun- herritar eta talde guztiei, eta bai bertan gure ondoan egonez edo urrutiagotik gutaz akordatuz Igorrek utzi digun hutsunea hobeto eramaten lagundu diguzuen guztioi: mila esker.

Esnaola - Salegi familia

LAGUN HORI

Honen bidez, zuri zuzentzen natzaizu, KATXALINek, Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkarteak, Mutrikun antolatu behar duen hitzaldira gonbidatzeko asmotan.

Bularreko minbizia goiz detektatzeari gero eta garrantzia handiagoa ematen zaio, eta horri buruz ondo informatuta egotea funtsezkoa da gu guztiontzat.

Hitzaldia, Donostiako Institutu Onkologikoko doktorea den, Maria Jesus Mitxelenak emango du, bertan, bularreko minbiziaren arrazoiez, tratamenduaz, prebentzioaz, eta abarrez hitz egingo du.

2012ko ekainaren 4an, arratsaldeko 18:30etan, Mutrikuko Zabiel Kultur Etxeko hitzaldi aretora etorri ahal izatea espero dut.

Adeitasunez agurtzen zaitut,

Jendarteko Zinegotzia
Arrate Uranga Mendizabal

zure ziztada behar dugu

Informazio eguneratua
eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

berrialaguna izan nahi baduzu, bete datuak eta helarazi:

- **Postaz:** BERRIA. Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** laguna@berria.info
- **Telefonoz:** 943-30 43 45

Honako ekarpen hau egin nahi diot BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOARI, G71006795 IFK duena:
Adierazi X batez zure aukera

☐ Urtean 100 € ☐ Urtean 200 €
Aldi batean ☐ Aldi batean ☐
Lau zatitan ☐ Lau zatitan ☐

☐ Urtean beste kopuru bat: ____ €
Aldi batean ☐
Lau zatitan ☐
100 eurotik beherako kopuruetan ordainketa aldi batean egingo da

☐ Hilean 10 €

Sinadura

Izen-abizenak:

Helbidea:

PK: Herria:

Kontu zenbakia: ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

Tel.: NA:

Posta elektronikoa:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa, beterik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOAren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOA, Iratxe Monastegia 45, 13. 31011 Iruñea.

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 6

ZABORRAREN KUDEAKETA

Apirileko alean, Bilduk zaborraren kudeaketari buruz dituen asmoen berri jakin nahian, udaleko zinegotzi den Jaionerengana jo genuen, eta asmo horien berri azaldu genizuen. Gaurkoan, oposizioan dagoen EAJ taldearengana hurbildu gara kudeaketa berri horri buruzko iritzia jakin nahian, eta hemen duzue Jose Angel Lizardi zinegotziak eta Felix Azpiazuk azaldutakoa.

Zein da zuen iritzia, udalean agintean dagoen Bilduk, zaborrak atez ate jasotzeko azaldu duen asmoaz?

Prentsa bidez jakin genuen Gipuzkoako 34 herrik atez ateko zabor bilketaren aldeko erabaki tinkoa hartu zutela, baita proposamen bera arbuiatua izan zela Bilduk gehiengoa ez duen herrietan ere. Baina, azken hamarkada honetan, Aldundiak hainbeste lan egindako gai baten inguruan, eta herritar guztiok hurbil-hurbiletik ukitzen gaituena izanik, gutxienezko kontsentsu batera iritsi beharra dagoela pentsatzen dugu. Onurak ez ditu izango soilik Aldundiaren planak, baina alternatiba bezala planteatzea kontsentsurako biderik eman gabe, gehiegikeria iruditzen zaigu.

Herritar asko hurbildu zaizkigu eta itaundu: Ez dute bada hori herrian jarriko? Ez duzue ezer egin behar? Guk emandako erantzuna hauxe izan da: gehiengoa dutenez eskubide osoa dute dagoen sistema aldatzeko, baina ahaleginduko gara herrigaldeketa bat gauzatu dadin.

Erraustegien alde agertzen zarete. Zeintzuk dira onurak?

Galderan darabilzun hitza ez da egokia gure ustez. Ez da erraustegia guk planteatzen duguna, balorizazio zentroa baizik. Europako direktibek (estatuek gero lege bihurtu beharko dituztenak) diote: hondakinak zaborretara bidali baino lehen, ahalik eta maila handienean aprobetxatu behar direla, eta hori lortzeko dira balorizazio zentro hauek. Hierarkia bat ezartzen du Europak:

1) Prebentzioa.
2) Berrerabilpena.
3) Birziklatzea.
4) Balorizazioa.
5) Deuseztatzea.

Lehenengo hirurak praktikara eraman ondoren daude biometanizazioa eta konpostajea, eta aprobetxa ezin daitezkeenak erretzen dira energia elektrikoa lortzeko. Aprobetxagarriak direnak erreko bagenitu edo zabortegira jaurti, errekurtsoak botatzen arituko ginateke.

Kritika batzuek diote Zubietako balorizazio zentro hori laugarren puntuari begira dagoela proiektatuta, Europak erraustegiak eraikitzeko jartzen dituen etekin minimoetara iristeko. Zein da zuen iritzia?

Ezezkoan gaude. Guk prebentzioari, berrerabilpenari eta birziklatzeari garrantzia ematen diogu, eta zaborren erabilpenean zirkulu itxi bat ezinezkoa denez (teknikoki ezin delako, edo materiak berak muga bat izaten duelako) erre beharra izango dugu, eta hori ere aprobetxatzea da helburua. Pentsa, bestalde, Zubietako proiektua ez dela gaurkoa, partidu politiko ezberdinak izan direla Biltzar Orokorretan, eta asko debatitutako gaia izan dela; beraz, konfidantza osoa dugu han erabakitako proiektuarekin.

Kontutan izan behar dugu, gainera, konposta bezalako gaiei erabilpenik ez bazaie ematen, zabor izaten jarraitzen dutela, eta bide hori oraindik jorratzeko dagoela; beraz, ezin dugu esan konpost bihurtu eta kito. Ezin ditugu gure lanak maila horretan bukatu.

Zergatik ez zarete atez ateko zabor bilketaren

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 7

EZTABAIDAGAI (II)

aldekoak? Onartzen al duzue bereizketa askoz ere handiagoa lortzen dela?

Lehenik eta behin, onartuko genuke bereizketa alorrean lorpen handiagoak lor daitezkeela atez atekoaren bidez epe motzean, duda gehiago daukagu epe luzean lor daitekeenarekin. Gure ustez, bide egokiak heziketarena eta sentsibilizazioarena dira: konbentzitu egin behar dugu jendea zaborrak ahalik eta era egokienean sailkatu beharrean gaudela. Herritarrak obligatzeak aurkako jarrera sortzen du, eta hori ez da eraginkorra izaten epe luzera. Atez atekoak norbanakoen askatasunari eragiten dio, eta hori beti da txarra.

Bestalde, herriaren irudia daukagu aurrean. Herri turistiko baten aurpegia erantsi nahi diogu erakargarritasun aldetik begiratuta, eta ez dugu uste zintzilikarioak oso estetikoak direnik, gutxiago plastikoz beteta daudenean. Pauso bat atzera egiten dugulakoan gaude: lehen, zaborrak lurrean lagatzen ziren; eta, orain, zintzilikarioetan, baina antzekoak dira biak.

Uste dugu zikina ere badela. Isuriek, zaborretan ibiltzen diren animalien eraginak, eta haize handiak direnean gerta daitezkeen zabor sakabanaketak ez diote lagunduko batere txukuntasunari.

Ohituretan talka handia ere eragiten du bilketa sistema horrek. Gaur egun, bakoitzak nahi duenean atera ditzake etxetik zaborrak; gero, agindutako ordutegi eta egutegietara lotu beharra izango du, askotan deserosoa gerta daitekeena.

Madrileko Nekazaritza eta Ingurumen ministerioaren webgunean eskegita dago Usurbilgo atez ateko bilketa sistema datu guztiekin. Zer iruditzen zaizue? Eta zer egingo zenukete bosgarren edukiontzia (marroia) jarriz gero, orain arte lortzen diren bereizketa zifrak igotzeko?

Lehenengo galderari erantzunez esango dizugu informazio horrekin batera beste pila handi bat agertzen direla webgune horretan, eta batzuek erabiliko dutela, eta, agian, praktikara eraman ere bai, baina bere horretan utziko genuke, ez gehiagoko ez gutxiagoko garrantzia eman gabe.

Bigarrenari buruz, kontutan izan behar dugu Mutrikuko herriak izan duen bilakaera zabor bilketaren inguruan. Sasoi batean euren leihoetatik itsasora jaurtitzen zutenek, gaur txukun-txukun bereizten dituzte euren hondakinak. Pena da daturik ez izatea, baina konbentzituta gaude gero eta hobeto ari garela, eta sentsibilitate hori zaintzen eta indartzen joango ginateke bosgarren edukiontzia (marroia) jarriz gero.

Nola laburbilduko zenukete zaborraren kontu hau edo zer azpimarratuko zenukete honetaz?

Zaborren aurrean gutako bakoitzaren jarrera dela garrantzizkoa esanez. Prebentziotik hasi (zer, zenbat eta zer kondizioetan erosten dugun jabetuz), berrerabilpena kontutan hartu, eta bereizketa egokiena eginez. Bideak izango dira, agian, gutxienekoak.



ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 8

URTEBETE PASATA ERE, ELORTZU GOGOAN

Urtebete pasa da Miruiatzek Elortzu joaten ikusi zuenetik. Haren oroimena bizia dela erakutsi nahi izan zuten herritarrek, frontoian bertan; pasatako une ilunak, oraingo momentu argi bihurtuz. Danok Bat Elkarteak eta lagun talde batek Elortzuri omenaldi txikia, apala, baina sentimenduz betea eskaini zioten. Eta herritarrek frontoia betez erantzun zuten. Gaztetxoak zestaz aritu ziren lehenik, gero, familia kantxaratuta, Elortzuren oroimena biziberritu zuten eta azkenik, palaz partida estelarra jokatu zuten: Piper-Txarli (urdin) eta Ziñua-Txilin (gorri). Partida bizi izan zen zentzu guztietan; eta garaipena urdinek eraman zuten (30-27).

KOMIKIXA

Josu Ituarte "Pitxame"ren eskutik



K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 9

MIJOAREN ZABALKUTZA AMAITUTA

Deba Beheko Industrialdea SA elkarteak, Mutrikuko Mijoa II industrialdearen zabalkuntza-lanen lehen fasea bukatu du, 6,1 milioi euroko inbertsioa egin ondoren. Zati hori bukatuta, eskualdeko enpresa sareak ondokoa eskuratu du: 5.168 metro karratuko azalera duten bederatzi nabe modular berri.



BANDAKO BAZKIDE EGITEAK OPARI BERRIAK LORTZEKO AUKERA DAKAR

Mutrikuko Bandak bazkideak egiteko kanpainarekin aurrera jarraitzen du. Mutrikuko hainbat gunetan dauden orriak betetzea nahiko da bandako kide izateko, eta 15 euroren truke hainbat opari eskuratuko ditu trukean bazkide egiten den horrek. Udaberriko, Santa Agedako eta udako bandaren kontzertuen CDa, bandaren ekitaldien egutegia eta musika hitzaldietarako gonbidapenak dira aitatutako opariak. Baina horiekin batera, opari berri bat eskuratzeko aukera ere jarri dute, aurten. Bazkide guztien artean, Kursaal-ean edo Euskalduna jauregian egingo den kontzertu baterako bi lagunentzako sarrerak eta afaria zozketatuko dituzte.

DANTZA, KANTA ETA ANTZERKIA BATUTA HILAREN AMAIERAKO EKITALDIAN

Azken urteetako euskal erromeriak kolore berezia hartuko du aurten. Izan ere, Ziriako Andonegi eta garaikideen omenaldia dela-eta, maiatzaren amaierako jaialdian, dantza ez ezik, kantua eta antzerkia ere egongo dira. Egunerako prestatu duten egitaraua ondokoa da: 12:00etan, Beheko plazan erromeria. 12:30ean, Sastreri aurrean antzerki laburra, kalejiran Erdiko kaletik Goiko plazara eta han erromeria. 13:00etan, Goiko Plazan, Kantu Zaharrak. Ondoren, antzerki laburra. 14:00 etan, kalejira Beheko plazara; dantzak, kantuak eta amaitzeko, Aitorren Hizkuntz Zaharra abestu.

ASTE SANTUKO BISITARI KOPURUAK BEHERA EGIN DU NABARMEN

Turismo bulegoak emandako datuen arabera, bisitari kopuruak nabarmen egin du behera aurtengo Aste Santuan. Apirilaren 5etik 9ra 204 pertsona pasa dira Mutrikuko turismo bulegotik. 2011n 422 pertsona pasa ziren bertatik. Beherakada horren arrazoi nagusienetakoa eguraldia dela uste dute turismo buelgoan. Izan ere, eguraldia dela eta, Geoparketik antolatutako bisita guztiak bertan behera gelditu ziren. Bisitarien jatorriari dagokionean, Euskal Herriko bisitariak, % 37 izan dira: %14 Bizkaikoak, %11 Gipuzkoakoak, %10 Nafarroakoak eta % 2 Arabakoak. Esapiniako bisitariak, berriz, %53 izan dira: gehiengoa Kataluiniatik (%21), Madrildik (%11) eta Valentziatik (%8) etorritakoak izan dira: Europa mailan, gehiengoa, Alemaniatik etorritakoak izan dira (%8).

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 10

PORTUEN ZUZENDARITZAK EGINGO DU EURI-UREN KANALIZAZIOA

Portuen zuzendaritza izango da moilara doazen uren kanalizazioa egitearen arduraduna. Euri urak batzeko hodia jarriko dute moila zaharrerako bidean dauden komunen atzean, eta ur horiek zuzenean itsasora botako dituzte. Ur-zikinen hodiak ez dira ukituko; horiek, orain arte bezalaxe, zuzenean haraztegira joango dira. Obrak 100 mila euroko kostua izango du.

OIHANA KORTAZAR ESPAINIAKO TXAPELDUNA, BERRIZ ERE

Espainiako MendI Lasterketa Txapelketa Parada Do Silen (Ourense, Espainia) jokatu berri da. 273 lasterkarik parte hartu dute bertan; eta emakumezkoetan, lehenengoa Oihana Kortazar izan da. Kortazarrek egindako denbora ondokoa da: 3:40:39. Mutrikun bizi den elgetarrak inoizko gehien sufritu zuela aitatu zuen probaren amaieran. Gizonezkoetan lehena, Ivan Ortiz andaluziarra izan zen. Bere denbora 2:59:27 izan zen. Lasterketako ezaugarri nagusia behelainoa izan zen. Lasterketa abiatzean, 7 gradu markatzen zituen termometroak, eta bidean zegoen lokatzak asko gogortu zuen proba.

AUTOBUSEN ORDUTEGIA ALDATUTA

Eskaintza hobetzea helburu, Debabarreneko autobusen ordutegietan aldaketak egon dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasuneko eta bide azpiegituretako sailaren eta Eusko Tren enpresaren arteko akordioaren ondoren datoz aldaketok. Era horretan, erabiltzaile gehien duten autobus zerbitzuen maiztasuna aregoatu egingo da, hala nola, Mallabia-Ondarroa, Eibar-Elgeta eta Azpeitia-Ermua artekoa. Mallabia eta Ondarroa batzen dituen lineari dagokionez, Ermua eta Mendaro arteko komunikazioa hobetu egin da. Horrela, astelehenetik barikura artean, Mendaroko Ospitalerako autobusen maiztasuna hogei minutukoa izango da, orain arteko 30 minutuen ordez.

Zapatuetan zerbitzu bat gehiago ipini dute. Mallabitik 23:00etan aterako da azken autobusa Mendaroraino, eta 22:10ean Ondarroatik Ermuraino. Udan, astelehenetik barikura bitartean, Mallabia eta Ondarroa artean orduro eskainiko da zerbitzu bat. Beste alde batetik, Eibar-Deba Express zerbitzua desagertu egingo da, erabiltzaile gutxi duen zerbitzua baita. Ordutegi berriak, inprimatzeko moduan aurki daitezke *www.debegesa.com* helbidean.

SOKATIRA TALDEA MARTXAN JARRIKO DA MAIATZEAN

Euskal Herriko Lur gaineko Sokatira Txapelketa martxan jarriko da maiatzean. Maila nagusia izango da lehendabizikoa: 680 kiloko maila. Bertan sei taldek parte hartuko dute: Goiherri A eta B, Gaztedi A eta B, Getxo eta Mutriku. Hiru saio jokatuko dira 680 kilotan. Lehena, Galdonan maiatzaren 12an; bigarrena, maiatzaren 19an Berriatuan eta azkena, maiatzaren 26an Iurretan. Hiru saio horiek Mutriku Sokatira Taldeak antolatuko ditu.

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 11

Otsuac umiac atera zituana

Mutrikuko udal artxiboko 1775. urteko dokumentu baten irakurri leikenez, Olatz goixa baillaran, Ube baserrixak bere ganauentzako arbola-orrixak hartzeko toki jakiña zaukan: "Al de Ubee el robledad desde el pertenecido de su casa hasta el arroyo de Asticoa, y los encinales de entre Yturrichoaga, Basarteco munoa, y *Otsuac umiac atera zituana*, hasta la heredad de su casa". Bai, ondo irakurri dezue: otsuak; izan ere, denpora hartan otsuak bizi ziran geure mendixetan. Gaur egun, berriz, Mutrikun, askok hartzari esaten dixue *otsua* eta *lobua* otsuari.

Olatz goixan segitxuta, sasoi hartako beste bi toki-izen berezi topau ditxugu: *Aiçeri çuloeta* (1680) eta *Azconar zuloeta* (1775). Otsuak ez bezela, aizerixak eta azkonarrak oraindio ere ikusi leikez Mutrikun.
Hiru piztixa aitxatu ditxugu, baiña askoz gehixo egon ziran Mutrikun: *basakatua* 'gato montés', *basakatu pardua* 'jineta', *basakatu papar-zurixa* 'garduña', *basakatu papar-horixa* 'marta', *mustelia* edo *satanderia* 'comadreja', *ipurtatsa* 'turón'...

Asko urritxu dira piztixak gurian. Sasoi baten, gure herriko baso, zulo eta txaretan aukeran topau zeikezen. Urritzeko errazoia? Bateko, berezko basuak galtzen juan diralako, besteko piztixok harrapatzeko ohitxuera haundixa zaualako...
Piztixa asko kaltegarritzat jotzen zitxuen gure baserritxarrak, batez ere, ardixak, oilluak eta ahuntzak hiltzen zixuezelako.
Horren adibidia da 1772 urtian, Manuel Antonio de Zuazolak, Mutrikuko orduko alkatiak eman zoan agindua: "Hace muchos años que en el monte llamado Arno jurisdicción de esta villa anda un *tigre* que según sus mercedes han sido informados ha hecho más de dos mil ducados de daños en ganado ovejuno y cabruno; y que todos los vecinos y moradores se hallan muy quejosos por no haberse tomado providencia alguna contra un animal tan feroz y perjudicial, por lo que acordaron sus mercedes se haga montería, y que para el efecto se de aviso a todos los cazadores de esta jurisdicción, a los cuales se de una refacción de pan, vino y abadejo a costa de los propios y rentas de esta dicha villa para que de este modo se evite tanto daño".

"Disekautako *basakatu pardua*, Mutrikuko baserri baten"

"Azkonarra, zulogille fiña"

Handik bost egunera, harrapatu ei zeuen. Olazko Aritza baserriko gizonak akabau zoan tiroz "tigre" haura. *Katamotza* 'lince' zan, itxura danez.
Gertaera berezi horretatik bi urtera, 1774an, Mutrikuko udalak dekretu bidez hau agindu zoan: "por alentar a todo cazador o aficionado, a que mate todo animal nocivo, se acuerda, que al que matare lobo se paguen por el tesorero de efectos de esta villa, 20 reales de vellón, al que matare zorra 6, y al que matare gato montes de país 3 reales".

Orain debekatuta badoz ere, gure adiñekuek, ondo goguan dauke zela erabiltzen ziran garai baten, *tranpak*, eta –animalixok bizirik harrapatzeko– *kajak*. Azken horrek egurrezko kutxa luzexkak ziran, eta batez ere basakatu ezberdiñak harrapatzeko ibiltzen zan. Basakatu paparzurixa izaten zan preziatuena, izan ere basakatu narruagaitxik diru asko pagatzen zan: hillian 1.000 edo 2.000 peztako soldatia zauanian basakatu narruak 2.000-3.000 pezta egitxen zoan!!

Aurreko horrek irakurritxa errez ulertu leike zerreitxio urritxu –edo galdu– diran hainbeste mendiko piztixok gurian. Ia aurrerantzian, animalixak eta pertsonak alkarren onduan bizitzen ikasten degun!!! Danontzako tokixa do-eta.

Josu Larrañaga Arrieta

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 12



Joxe Mari Ulazia Ibarzabal

Ez du oporren beharrik izaten; hartu eta gero, ordea, martxan hastea kostatu egiten zaio. Ostiraletan lanean jarraituko luke igandera arte, asteak aurrera egin ahala energiaz betetzen da-eta; baina, astelehenetan, goiz erdia kostatzen zaio berriro martxan jartzea. Behin mediku batek esan omen zion tren handi baten parekoa dela. Sormen-lanak beti iluntzerako lagatzen ditu: askoz etorri handiagoa du-eta; goizetan, telefono deiak, e-mailak eta horrelakoak egiten ditu; baina antolatze-lanak, arratsaldetik aurrera beti. Egunero irakurtzen du. Oraintsu, Xabier Leteren (Auto)biografia eta Jose Antonio Pagolaren azken liburua (Jesusen Bidea Markoren eskutik). Biak gomendatzen dizkigu. Bere filosofia: pertsona aintzakotzat hartzea eta bakoitzaren ahalbideak bultzatzea. "Mano de obra", "Recursos Humanos" eta antzeko terminologia baztertzearen aldekoa da, pertsonak garelako horren atzean gaudenok. Lidergoa asko sakondu duen kontzeptua da, praktikatzen saiatzen dena, eta pasio handia dauka gai horretan.

Eman diezaiogun gainbegiratua zure kurrikuluari

Industri Ingeniaritza Teknikoan Diplomatua. Berrikuntzaren Kudeaketan Masterra. Kooperatibagintzan Masterra. Egindako ikastaroen artean: "Kalitatea. Bikaintasun ereduak. EFQM", "Zuzendaritzarako Lidergoa", "Komunikaziorako Gaitasuna. Performantzia edo Errendimendu handiko taldeak".

Armeria Eskolako irakasle eta ikasketa buru hasierako 15 urtetan. IKASBAT Deba Beheko Ikasketa Teknikoen Koordinakundearen arduradun (DEBEGESA). Elgoibarko Gestio Eskolako zuzendari. ACBko Garapen eta Antolaketa zuzendari. FAGOR ARRASATE Kop.E.ko Pertsonen Garapen eta Antolaketa arduradun.

Gaur egunean, DBS (Deusto Business School)eko "In Company" atalaren arduradun eta Alumni DBS-ren koordinatzaile. Baita Armeria Eskolako Ikasle Ohien presidente ere.

Ibilbide luze horren ondoren, nola definituko zenuke zeure burua?

Urteak joan ahala benetan hazten, hezitzen eta ikasten joan naizen pertsona bat, benetan zorte handikoa: etapa batean ari nintzela hortik ateratzen zirelako proiektu eta aukera berriak, partaide eta, askotan, antolatzaile eta koordinatzaile-lana egiteko. Eta etapa horietan guztietan asko ikasteko eta jende asko ezagutzeko aukera izan dudan pertsona. Eta benetan oso harreman-sare aberatsa edukitzeko, lantzeko eta bizitzeko aukera izan dudana. Bizpahiru hitzetara bilduta: ikasten eta irakasten nabilen pertsona naiz, daukadana eta dakidana besteekin konpartitzen. Eta beste atal bat da, askotan egokitzen zaidana, proiektu eta programa berrien antolakuntzan nabilen pertsona. Nagoen tokian nagoela, talde-lana bultzatzea gustatzen zait: pertsonenganako gertutasuna eta konfidantza. Amaitzeko esango dizut bizitza honetan oso pozik nagoen pertsona naizela. Oraingo eta aurreko lanetan ere oso gustura eta burubelarri sartuta ibili izan naizelako eta beti ere pertsonenganako joera ardatz hartuta. Baina ez daukat aparteko meriturik, egoismoz egiten dut: konturatzen naizelako

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 13

horrela ekinda benetan zoriontsuago garela eta askoz ere pozago egoten garela.

Ikasketa teknikoak egin izan arren, humanista zara, gehienbat, ezta?
Orain dela 58 urte jaio nintzen. Eskolan, Kofradian ibilitakoa naiz; gero, Don Jose Antoniok sortu berri zeukan Eskola Profesionalean, Industri Ofizialia Mekanikoa egin nuen. Bide naturala eta bakarra horixe zen herrian. Familia apal-apalekoa eta semerik zaharrena izanik, ez genuen etxean inolako aukerarik ikasten jarraitzeko, eta 17 urterekin lanean hastekotan nintzen. Orduan, zorte handia izan nuen: Eibarra ezkondu berri ziren Okelarko Benita eta Berrosasiko Ramonek euren etxean hartu ninduten, eta eskerrak horri, Mikromekanikan Maestria Industriala egin nuen Armeria Eskolan. Ondo ibili nintzen ikasketetan, eta bertan lanean hasteko eskatu zidaten.

Gerora, lanean nenbilela, Ingeniaritza Mekanikoa egin nuen. Horra artekoa da bizitzak eta geure aukera urriek markatutako bidea, ikasketa teknikoena, baina betidanik izan dut giza-zientzia, euskara eta kulturarako joera. Irakasle hasi eta zuzendaritza taldeetan sartzeko aukera izan nuen, eta horrek kudeaketa eta beste arduramundu batean sartu ninduen eta sare sozial zabala eman zidan. Horrela, irakasletza alde batera laga, eta kudeaketa, zuzendaritza, koordinazio eta antolatze-lanetan, pertsonen antolakuntza eta garapena bultzatzeko departamenduen arduretan ibili izan naiz, neure pasioa horixe delako.

> **" ezagutza, abilidadeak, esperientzia, jarrera eta konportamentuak (baloreak). Bateratze horri guztiari deitzen diot nik gaitasuna."**

Zer da orain esku artean duzun "In Company" programa?
Gaur egungo enpresa eta erakundeetan zuzendaritza arduratan dabilen jendeari edo zuzendaritza-taldeei zuzendutako esparrua da DBS (Deusto Business School). Normalean 8, 10 edo 12 urte baino gehiagotan horretan ari den jendeari zuzendutakoa, "executive" hitzarekin definitzen den jende-motari, alegia. Alde batetik programa irekiak eskaintzen zaizkie: buruzagitza, finantza, osasungintza, coaching-gintza, berrikuntza, marketingintza… Master horiek euren ezagutzak, jarrerak eta gaur egunerako behar diren gaitasunak lantzera eta eguneratzera bideratutakoak dira. Aipatu ditudan master ireki horietan edonork har dezake parte. "In Company" deritzana, berriz, enpresa bakar bati zuzendutako programa da, bere neurrira eta bere beharretara egokitutako programa. Atzo bertan amaitu genuen, adibidez, Ormazabal enpresa-taldeak mundu osoan dauzkan zuzendarientzat sortutako programa: "Gestion de la diversidad cultural" izenekoa.

Orain puri-purian dagoen irakaskuntza-sistema tre-betasun edo gaitasunetan oinarritzen da. Zer deritzozu?
Orain dela 20 urte Gestio Eskola martxan ipini genuenean Elgoibarren, benetan gauza desberdin eta berritzaile bat nahi genuen egin, eta uste dut asmatu ere asmatu genuela, oraindik izenik ez zeukanean, mundu horretatik abiatu ginelako. Eta geroxeago, 15/17 urte beranduago etorri dira Boloniaren planteamendua eta abarrak, guk lehenago urratutako bideak direnak. Baina Gestio Eskolaren izenaren azpian beti ipintzen genuen honelako lelo bat: jakitez, ekitez… eta izatez. Adierazi nahi genuen bizitza honetan jakitea ondo dagoela, jakitea baino garrantzitsuagoa dakigun hori aplikatzea dela: egitea, eraikitzea, eta hori ere ez dela erabat definitiboa, benetan klabea dela izate horretan gizaki bezala asmatzea. Nire ikuspegitik, zoritxarrez, askotan egiten dugun da prestakuntza oso espezializatua, eta, benetan, nire heziketa kontzeptua askoz ere zabalagoa da, holistikoagoa, orokortasun bat bilatu beharko genioke, eta hor aipatuko nuke gaitasun kontzeptua: konpetenteak izatea, baina ez konpetitzeko. Gaitasun horrek barnean ditu: ezagutza, abilidadeak, esperientzia eta lanbide horrek behar duen jarrera, kondukta eta konportamentuak (baloreak). Eta bateratze horri guztiari deitzen diot nik gaitasuna.

Eta balore horietan hezitzerik badago?
Dudarik gabe! Norbera "jaio egiten dela" eta "ni horrelakoa naiz" horrek ez dauka inolako justifikaziorik. Zorionez, horretan ere hezi egiten da eta hazi ere egin gaitezke. Jarrera aldaketa, eta aritzea, eta entrenatzea da. Balore horiek ez dira berezkoak, landu egin behar dira, eta zenbat eta gehiago ahalegindu eta praktikatu, orduan eta hobe. Lidergo kontua, pertsona hobea izatea eta profesional hobea izate hori ere hortik dator. Txistean bezala: Herri honetan zein pertsonaia ilustratu jaio da? Eta bertakoaren erantzuna: Hemen ez da pertsonaia ilustratutik jaiotzen, hemen umeak jaiotzen dira. Hori horrelaxe da, eta horretaz jabetu egin behar gara.
Horren harira esango dizut ni gaur bertan egon naizela Sarrikon hitzaldi interesgarri batean. Christian Felber etorri da ideia berri eta berritzaile batzuekin: La economía del bien común izena daraman teoria bultzatzen du berak. Azpimarratu nahi nuke berak heziketaz esandako kontu bat. Bere ustez, heziketa-mundua oso-oso garrantzitsua da eta bost atal hauek bultzatu behar dira: emozioen arloa, baloreetan hezitzea, heziketa demokratikoa, norberaren burua ezagutzea eta naturarekin harreman estuagoa izatea.

Baloreetan hezitzeko kontu horri helduta, esango nuke baloreak asko direla, baina gutxi batzuetan oinarritzea ere nahikoa izango litzatekeela: konfidantza, komunikazioa (amankomunean jartzeko gaitasuna), norberarengandik hasitako zintzotasuna eta garbitasuna, zerbitze-kontzeptua, partekatzea… eta horiek dira benetan behar ditugun baloreak. Eta gauzarik politena da balore horietan ahalegintzen garen neurrian, askoz ere zoriontsuagoak garela. Izan ere, zorion handiagoa dakar emateak hartzeak baino. Garbi daukat nik, neure esperientzian, zoriontsuagoak garela besteak zoriontsu egiten ditugun neurrian.

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 14



HERRITIK BIDALITAKOAK

Lekeition, 1937ko otsailean

JARRI-TOKI
Jatetxea

- Eguneko menua eta karta
- Familia giroko bazkariak
- Enpresa bazkariak
- Ezkontza, bataio, Jaunartze...

Tel. 943 60 32 39 MUTRIKU

Gizonezkoen ileapaindegia

IMOTZ

Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 15

1936 urteko irailean Gipuzkoa Francoren menpean erori zen. 1937ko otsailean, Francoren aldekoek herria lagatzera behartu zituzten 800 ume eta emakume horien artean mutrikuar ugari ziren. "EUZKADI" egunkariak Parisen 1937ko ekainaren 24an kaleratutako izenak dira hemen agertzen direnak.

1937ko otsailaren 10ean espainiar fazistek ondorengo mutrikuarrak kanporatu zituzten:

*Asuncion Lopetegi Oyarzabal, 36 urtekoa, eta Maria Milagros Arrieta 10 urteko alaba.

*Eusebia Berakoetxea Bengoetxea, 37 urtekoa, eta Irene Garcia 3 urteko alaba.

*Josefa Osa Egaña, 48 urtekoa, eta Maria Jesus eta Izaskun Usobiaga, 8 eta 4 urteko alabak.

*Carmen Martinez Perez, 32 urtekoa, Consuelo eta Manolo 5 eta 3 urteko seme- alabak.

*Maria Bollain Balenziaga, 33 urtekoa, eta Maria Arantzazu Urreisti Bollain 4 hilabeteko alaba.

*Araceli Martinez Perez, 41 urtekoa.

*Josefa Galdos Zabaleta, 25 urtekoa, eta Iñaki Agirregomezkorta 3 urteko semea.

*Vicenta Oyarzabal Etxeberria, 34 urtekoa, eta Rufo Ribano urte beteko semea.

*Paula Mendizabal Lazkurain, 32 urtekoa, eta Ignacio, Luis eta Jon Zendoia,12, 6 eta 2 urteko semeak.

*Maria Barrenetxea Galdos, 32 urtekoa.

*Magdalena Lizardi Izagirre, 30 urtekoa, eta Magdalena, Iñaki, Martin, Bernardin, Jon eta Xabier Arrizabalaga Lizardi, 16, 13, 10, 8, 5 eta 2 urteko seme-alabak.

*Basilisa Aranberri Itziar, 38 urtekoa, eta Maria Fermina, Mateo, Nazario, Jose eta Luis Oyarzabal, 16, 15, 13, 10 eta 6 urteko seme-alabak.

*Purificacion Sustaeta Olabe, 47 urtekoa, eta Lorea, Aniceta, Modesto eta Francisca, 18, 10, 7 eta 6 urteko seme-alabak.

*Martina Belaustegi Galdos, 38 urtekoa, eta Miren Lore, Josune, Jose Luis, Josu, Narkis, Sabin, Garbiñe eta Arrate Andonegi, 16, 15, 13, 10, 7, 3, 2 eta urtebeteko seme-alabak.

*Romualda Burgaña Furundarena, 30 urtekoa, eta Joseba Basterretxea 5 hilabeteko semea.

*Juana Belaustegi Sustaeta, 25 urtekoa, eta Jokin eta Edurne 3 eta urtebeteko seme-alabak.

*Luisa Larrañaga Zenekorta, 28 urtekoa, eta Isidro Altube 4 urteko semea.

*Ramona Egurbide Basurko, 27 urtekoa, eta Edurne Burgaña 3 urteko alaba.

*Jacinta Altuna Urkiri, 32 urtekoa, eta Germana Bastida 20 hilabeteko alaba.

*Irene Etxabe Letona, 30 urtekoa, eta Eugenio, Iñaki eta Itziar Egurbide, 3, 2 eta urtebeteko seme-alabak.

*Justina Maeztu Azkarraga, 33 urtekoa, eta Edurne eta Eli Arrieta, 5 eta 3 urteko seme-alabak.

*Luisa Agirrebengoa Basurko, 33 urtekoa, eta Maria Angeles, Ibon eta Joseba, 9, 7 eta 5 urteko seme-alabak.

*Demetria Isusi Aizpurua, 56 urtekoa, eta Carolina, Ines, Maria, Miguel, Lorenzo eta Lucia Garcia, 24, 22, 19, 16, eta 14 urteko seme-alabak.

*Eusebia Beristain Esnaola, 28 urtekoa, eta Amaia Zaizarbitoria 2 urteko alaba.

PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa
igeltsaritza - aroztegia
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagasa@euskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

PANADERIA POTERO OKINDEGIA
GREGORIO AZKUE
ETXEKO TEL. 943 60 43 17
DENDAKO TEL. 943 60 36 43
OKINDEGIKO TEL. 943 60 45 12

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 16





ARRAINAK URETAN BEZALA...

Aurtengoa zortzigarren ikasturtea dute. 2004-2005ean ekin zion Akuakultura Eskolak bere ibilbideari. Ordutik hamaika pauso eman dute eta horren berri jakin asmoz Imanol Garate irakaslearekin bildu gara solas ederrean. Hasierako garai haiek gogoan ditu Imanolek, eta pasio berberarekin bizi ditu bere lana eta jarduna.

Sorreratik gaurdainoko bilakaera nolakoa izan dela esango zenuke...

Nik Biologia klaseak ematen nituen Mutrikuko Institutuan eta Akuakulturako proiektua egitea eskatu zidaten. Paper gainean dena da arraza. Eskola egoera prekarioan sortu zen. Berez, eraikuntza hau ez da akuakulturarako eraikuntzarik egokiena, aldaketak egin behar izan ditugu hazkuntza-planta bat eraikitzeko, baina daukagunarekin moldatu behar. Akuakulturako apustua arriskutsua izan zen, hemen ez dago-eta akuakulturako sektorerik. Tekniko onak prestatzea da gure lana. Guk ezin dugu baliabiderik sortu tekniko horiek lan egin dezaten. Garai haietan inork gutxik zekien honi buruz, ez dakit gaur ezagunagoa den edo ez, niri hala iruditu arren.

Esango nuke eskola ari dela betetzen bere helburuak eta, gainera, maila onean, nahiz eta jakin gu ez garela hori esateko egokienak. Honek daukan baliorik onena lantaldea da, gure arteko kohesioa handia da. Hasieran, bi ginen; hurrengo urtean, bostera igo ginen eta, egun, zazpi irakasle aritzen gara. Aldaketak handiak izan dira maila guztietan, eta onerako gainera.

Ikasleei dagokienez...

Ikasle kopurua ere mantentzen da, dozena bat gutxi gorabehera. Kontuan izanda heziketa zikloak, agian, gutxitxo irudi dezake, baina esan behar dut gure ikasteko metodoa praktikoa dela hein handi batean. Ehuneko 60-70a hazkuntza-gelan ematen dugu. Klase teorikoak ere izaten dituzte, baina garbi daukaguna da hemendik ateratzen den ikasleak gaitasun teknikoa izan behar duela. Ezagupenak bai, baina ezagupen horiek nola aplikatu behar diren jabetu behar dira, hau da, prozesu osoaz jabetu. Egunero jaten eman, egunero garbitu, egunerako jarraipena egin, muntaketak, elikadurak... gaitasuna eta trebezia hartzea lan guztietan.

Bi urteko ikaskuntza da. Goi mailako ziklo bat da, eta bi mila ordu dauzka. Bigarren urteko azken hiru hilabeteetan praktikak egiten dira enpresetan. Erasmus bekak erabiltzen ditugu eta Europara bidaltzen ditugu. Ikaslegoaren erdia baino gehiago joaten da Irlanda, Ingalaterra, Frantzia, Portugal, Grezia edo Italiara. Aukera ederra da beste lurralde batzuk ezagutzeko, eta askok ondo aprobetxatzen dute; denetik dago. Europara joaten ez dena inguru honetako enpresetan aritzen da, nahiz eta asko ez izan. Akuakulturak, bestalde, badauzka beste irtenbide batzuk: akuarioak. Donostian zein Getxon praktikak egin ditzakete, eta bertan lanean diharduenak ere badira. Bioteknologia mundua ere izan daiteke beste irtenbide bat.

Akuakulturako etorkizuna nola ikusten duzu?

Beti esaten da hemen akuakultura egiteko eragozpen asko dagoela. Hemengo itsasoan ez da sekula frogarik egin, beti esan izan da itsaso zakarregia dela. Badirudi orain badagoela asmoren bat-edo froga egiteko. Nik nekazaritzarekin alderatzen dut. Gure orografía berezia denez, nekazaritza-mota bat eskatzen du, eta horretara bideratu dugu. Nik usted dut akuakultura ere gurera egokitu behar dugula, ez daukagu zertan derrigorrez urraburua

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 17






eta lupina hazi, beste espezie batzuk landu daitezke. Ez dut ikusten enpresa handiak izan behar direnik hori kudeatuko dutenak. Horiek muntatzeko ez dago ezagupenik, dena kanpotik ekarri beharko litzateke. Nire ustez, askoz ere egokiagoa da bertan ikertzea zein espezie landu daitezkeen hemen, eta ikusi zein den interesgarriena. Negozio txikiak, askotan familiarrak, bi-hiru lagunekoak izan daitezke. Bestalde, gure uren tenperaturak ere badu zerikusia landu nahi den espeziearekin. Adibidez, Mediterraneoan hazten diren urraburuak azkarrago hazten dira hemengoak baino, uraren tenperaturagatik. Negozio moduan antolatuz gero, hangoa azkarragoa da hemengoa baino, kantitate handiagoa atera daiteke-eta denbora laburragoan. Akuakulturan, oraindik, hasieran gaude, eta ez da planteatzen kantitate eta kalitatearen arteko diferentziarik . Nekazaritzan eta abelgintzan produktu mota berean aukera desberdinak ditugu. Akuakulturan egin eta egin ari dira ea zeinek ateratzen duen gehien eta merkeen. Etorriko dira beste modu batera ekoiztuko dutenak, mantsoago baina kalitatea bermatuz. Iparraldeko Bankan egiten duten bezala amuarrainarekin. Besteetan sei hilabetetan hazten badituzte, Bankakoek bi urtetan hazten dituzte. Garestiagoak dira, bai, baina kalitatea bermatuta dute. Kalitatea diodanean, zera diot ez dela pakete polit batean aurkeztea; zer jan duen, nola hazi den, zein bizi baldintzak izan dituen jakitea baizik. Guzti hori bakoitzaren etikaren arabera dago. Etika kontsumitzailearengan eta ekoizlearengan dago. Nekazaritzan, arrantzan, artzantzan... teknika desberdinak daude, eta norberak jarri behar dio etika, akuakulturarako ere balio du horrek.

Zein espezierekin ari zarete?

Espezie askorekin egiten dugu lan. Modulu desberdinak lantzen ditugu: arrainen hazkuntza, moluskuen hazkuntza, krustazeoena, fitoplaktonak, zooplaktonak... arrainetan ur gazikoak eta gezakoak: urraburuak, lupiak, mihiarrainak... angulekin ere egin dugu ikerketa. Europatik etorri den proiektu bat izan da, eta proiektuaren zati bat hemen egin dugu, eta ondo atera da. Kantauri isurialdetik Oria ibaia aukeratu zuten angulak botatzeko, eta halaxe egin zen. Guk bi hilabetetan eduki ditugu hazten, eta ondo joan da dena. Horrekin ere asko ikasi dugu, horietako batzuk hementxe ditugu, eta saiatuko gara hazten ikusteko hemendik urtebetera zein tamaina duten, bi urtera zenbatekoa... Esperientzia bakoitza ikasteko bidea da, eta halaxe jarraituko dugu.

Moilan, 16 x 10 metroko kaiola bat jarri dute AZTIren proiektu baterako.
Antxoa deskargatu dute bertan eta Akuakulturaren partehartzearekin, jarraipena egingo zaio (zein eboluzio duen, nola hazten den...). 5 hilabetetako esperientzia izango da. Denbora hori pasatakoan aterako dituzte ondorioak.

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 18

MUTRIKUN ERE, Herrira

Herrira Mutriku **ekimenaren aurkezpena egin zen joan den hilaren 28an, Zabiel Kultur etxean. Herritarrek sortua eta herritarren eskutik garatuko den ekimen berria aurkeztu zen; zabala, partehartzailea eta ekarpen mota ezberdinei bide emango diena. Ideologia edozein dela ere, Presoak eta iheslari politikoak etxera ekartzeko helburuak bilduko dituen mugimendua.**

Urteetako gatazka eta enfretamenduak ondorio asko utzi ditu gure herrian, baita Mutrikun ere; horien artean, preso eta iheslari politikoak. Horiek gatazkaren parte eta ondorio dira, eta gatazkari irtenbide demokratikoa eman eta bake egoera bat ezartzeko prozesuak denen parte-hartzea eskatzen du egiazkoa eta behin betikoa izan nahi badu. Preso eta iheslarien egoera da talde horren kezkaiturri, eta horri irtenbidea ematea dute helburu.
Azken hilabeteetan, Euskal Herrian zabalduriko testuinguru politiko berrian, preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekintza parte-hartzaile arrakastatsuak garatu dira ***Egin Dezagun Bidea*** ekimenaren eskutik. Herritar asko inplikatu da dinamika horretan, eta mota guztietako eragileek bat egin dute aurrera eraman diren ekintza askorekin. Gailurra urtarrilaren 7an izan zen, Bilbon 110.000 lagun bildu zirelarik. Aurreko mugimendu guzti horien gorpuzteak ekimen berri baten jaiotza ere eragin du: ***Herrira***.

Herrira ekimenak bat egiten du Gernikako Akordioak marrazturiko ibilbide orriarekin eta harekin irmoki konprometitzen da. Horrez gain, Herri mugimendua dugu; herritarrek sortua eta herritarren eskutik garatuko dena. Irekia eta partehartzailea; "herritarren iniziatiba eta konpromisotik garatuko den dinamika izatea nahi dugu, horregatik dei egin eta bildu gara gaur hemen mutrikuarrok", zioten. Preso eta iheslarien eskubideekin eta gatazka konpontzeko ibilbidean haien etxeratzeko helburuekin bat egiten duten guztien bilgunea da jada; "helburu jakin batzuek batzen gaituzte, ez ideologia edo egitasmo politiko batek", euren hitzetan.
Amnistia da ekimen horren iparra eta helburua; Euskal preso eta iheslariak etxera ekartzea. Horien parte hartzea behar-beharrezkoa ikusten dute prozesu demokratikoan, horretarako baliabide eta aukerak ezarri nahi dituzte. Horrez gain, bizi arteko

aparra
Erdiko kalea, 29
Tel.: 943 60 45 94
Jantziak eta pitxiak
Barrenkalea, 2
Tel.: 943 60 47 43
KRESALA
GIZON ETA EMAKUME,
GAZTE ZEIN HELDUENTZAKO MODA

Camping
Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 19

zigorra duten presoak, gaixorik direnen egoera, dispertsioa eta isolamendua bukatu behar direla diote. Urratsez urrats, preso eta iheslariak etxera ekartzen joateko bidea egin nahi da.***"Hori guztia aurrera eramateko Mutrikuko herritarren parte-hartzea eta bultzada ezinbestekoa da",*** diote. Helburu horiek aurrera eramateko hiru talde osatu dira gure herrian, Mutrikun: Sostengu Sarea, Komunikazio Taldea eta Harreman Taldea. Lehen biak jadanik martxan hasi dira.

Sostengu Sarea

Herrira mugimenduaren baitan antolatu den sarea da. Funtzio ezberdinak beteko ditu, horien artean: lehenik, mugimenduari bitarteko ekonomikoak eskaini eta, aldi berean, tokiko dinamiken beharrei erantzun. Bitarteko ekonomikoak eskaintzea aipatzen denean, honetan oinarritzen dira: preso eta iheslari politikoei asistentzia bermatu, laguntza juridikoa eman, osasun asistentzia duin eta profesionala luzatu, giza asistentzia bideratu… Horrek guztiak gastu ekonomiko handia ekartzen baitu. Eta gastu horiei aurre egiteko, batetik, ekimen nazionalak antolatuko dira; hurrengo ekimena maiatzaren 19an izango da, eta, bestetik, herri mailan egitea erabakitzen direnak. "Aipaturiko guztia bermatzeko sare hau osatzen joan behar da parte hartu nahi duten Mutrikuar guztiekin", esan dute.

Komunikazio sarea

Lan talde horren helburua komunikazio bide berriak zabaltzean datza, betiere, aurrez erabili diren bideak bazter batera utzi barik. Informazioa zabaltzea da beraien lana eta, bestalde, jendearen iritziak eta asmoak jasotzea, Mutrikuar guztien artean bidea eginez. Egiten diren ekintza guztien berri jasoko dute; elkarrizketa, kontzertu, topaketa, argazki bilduma…,eta horiek guztiak bildu eta gorde nahi dituzte, egiten den lan guztia haizeak eraman ez dezan. Eta, azkenik, Harreman Sarea; "osatzeke daukagun taldea da, datozen egun hauetan herritarren partehartze zuzenarekin beteko dugu", esan digute. Hauxe da eure leloa: ***"Denon artean eta indarrak metatuz, egingo dugu bidea"***

Zure establezimenduaren berri mutrikuar guztiei emateko...
KALAPUTXI
Luardo etxea, behea · Barrenkale, 12 · Tel. 635748393
kalaputxi@topagunea.com

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:42 Página 20

ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK ZORION

ANGIE
Zorionak etxeko sorginari maiatzaren 7an urteak bete dituzulako. Marrubizko 6 muxu haundi etxekoen partez.

SANDRA
Zorionak! maiatzean urteak beteko dituzulako. Eutsi irrifarre goxo horri urte askuan.

IGOR
Zorionak txapeldun! Besarkada eta matxo haundi bat zuretzako, asko maite zaituen Mutrikuko familiak.

ANE eta LEIRE
Zorionak, 10 urte maiatzaren 15ean. Dagoeneko ia bi eskukada osoak. Ondo-ondo pasa eta muxu handiak etxeko guztien partez.



PEPE eta NAHIKARI
Zorionak atxona eta etxeko pitufinari maiatzaren 6an urteak egiten dituzuelako.
Nahikari 3 urte dituzu jada!! Zorionak etxeko guztion partez eta muxu handi bat.

EKAITZ eta ALAIN
Maiatzian Zorionak bi lehengusu jator hauei! Aliron, aliron!

MANEX
Gure kaxetako danboliñai,
Zorionak!
Tolon & Masillas kaxetakuak.

PILI *Katxo*
Maiatzaren 23an
Zorionak!

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

PIKUA
www.pikua.es
JATETXEA
LANDETXEA
Laranga auzoa (Mutriku)
eguneroko menua
berezitasuna txerri txikia
(enkarguz, erreta edo burduntzian)
Tel.943 942 222 · 629105733 · luis@pikua.es

KALAPUTXI
INTERNETEN ERE BADAUKAZU!
http://kalaputxi.blogspot.com

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:43 Página 21

1957ko martxoaren 12an
Sebastián eta Rufino Ituarte anaiak bizikletarekin

ANSORREGI
Oinetakoak
Erdiko kale, 9 - 943 60 33 42

IÑIGOBELEN
konde 3 - tfnoa. 943603701
argazki lanak
erretoke digitala
diseinu grafikoa
fotokopiak zuribeltzean/koloretan
euskal preso eta iheslariak etxera

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:43 Página 22

ZAINTZAKO BOTIKAK

MAIATZA: Gaueko 10ak arte.

14tik **17**ra Zalduegi (Deba)
18tik **20**ra Burgoa (Deba)
(zapatu goizean Apraiz)
21etik **24**ra Otxagabia
25etik **27**ra Apraiz (Mutriku)
28tik 31ra Burgoa (Deba)

EKAINA: Gaueko 10ak arte.

1etik **3**ra Zalduegi (Deba)
(zapatu goizean Otxagabia)
4tik **7**ra Apraiz (Deba)
8tik **10e**ra Otxagabia (Mutriku)
11tik **14**ra Zalduegi (Mutriku)
15etik **17**ra Burgoa (Deba)
(zapatu goizean Apraiz)
18tik **21**era Otxagabia
22tik **24**ra Apraiz
25etik **28**ra Burgoa
29 eta **30** Zalduegi
(zapatu goizean Otxagabia)

Gaueko 10etatik aurrera
ELGOIBARREN
ikus 4. orrialdea

MARGO ERAKUSKETA

Xabier Flores Zendoia, *Dimas*

maiatzaren 14tik 20ra
18:00etatik 20:00etara
Zabiel kultur etxean

MENDI IRTEERAK

EKAINAK 3
ARNOKO VIII.
MENDI LASTERKETA
EKAINAK 10
MUTRIKUKO INGURUAK
EZAGUTUZ
EKAINAK 16
GAZTETXOEKIN
MENDI IRTEERA
EKAINAK 17
ANTOÑANA-MUELA-
ANTOÑANA (ARABA)

MAIATZA

HISTORIA JARDUNALDIAK

· Maiatzak 18, barixakua

1512. Nafarroaren konkista
Beñi Agirreren eskutik
19:00etan Zabiel Kultur Etxean

· Maiatzak 26, zapatua

EUSKAL ERROMERIA - ZIRIAKO ANDONEGI eta GARAIKIDEEI OMENALDIA

12:00etan
Beheko plazan **erromeria**ren hasiera.

12:30etan
Barrenkalen, Sastreri aurrean **Sketxa.** Ondoren, **Kalejiran** Erdiko kaletik Goiko plazara.

13:00etan
Goiko Plazan **Erromeria, Kantu Zaharrak eta Sketxa (antzerkia).**

14:00etan
kalejiran beheko plazara, **Dantza** eta **Kantuak.** Bukaeran **Aitorren Hizkuntz Zaharra** kantatuko da.

16:00etatik 21:00etara Beheko Plazan **Imuntzo eta Belokirekin Erromeria.**

LITERATURA TAILERRA

Ekainaren 2an Luardon
Komentatzeko liburua:
ETXEKO HAUTSA
Anjel Lertxundirena
NAHI DUENARENTZAT IREKIA

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:43 Página 23

Vitoria Optika

AUDIOLOGIA ZENTROA

- Osasun sailak homologatutako audiologia zentroa
- Audioprotesista egunero dago zentroan
- Audiometriak doan, kabina intsonorizatuan
- Teknologia berrienak erabiltzen ditugu
- Etxean ere atenditzen dugu (Graduazioak eta Audiometriak)

Tel. 94 613 41 38
e-mail: mvitoria@cnoo.es

Iparkale, 1
ONDARROA

Osasunarengatik

Ingurumenarengatik

Ongizatearengatik

Seme-alabengatik

Ekonomiarengatik

ondO egitera goaZZ

Gutrikuko Institutua

IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA ETA EGUNERATUA
KALITATEA
ENPRESA PROIEKTUAK
LAN PRAKTIKAK: INGURUAN eta ATZERRIAN

DBH
Batxilergoa
Lanbide Heziketa
Goi mailako Teknikari Tituloak:
·Administraritza
·Elektrizitatea
·Akuakultura
Sarbide froga prestatzeko kurtsoa.

Izena emateko:
Institutuko idazkaritzan
edo 943 60 35 45

K117:kalaputxi aldizkaria.qxd 11/05/12 00:43 Página 24